

JOAN DA UDA

Irailak 15 ditu gaur.

Uda bukatu egin da dagoeneko, Endika eta Uxue nebarrebek Zarautzen eman dituzte uztaila eta abuztua, urtero ohi duten bezala.

Oporrak berehala igaro direla iruditu zaie; hondartzan, igerilekuan, bizikletan eta tenisean konturatu gabe joan zaizkie egunak.

Orain eskolara itzultzeko oso gutxi falta da eta, oporraldiaz oroitzean, apur bat goibeltzen dira Endika eta Uxue.

Endikak eta Uxuek beren lehengusu-lehengusinekin igaro zituzten oporretako egun batzuk.

Lehenbizi, Lore etorri zitzaien bisitan Baionatik eta uztaila osoa eman zuen Zarautzen. Gero, Andoni eta Leire etorri ziren Barakaldotik, guztiok elkarrekin uztaileko bigarren hamabostaldia igarotzeko.



Bost neska-mutilak oso ongi konpontzen dira elkarrekin, batez ere neskak.

Andoni eta Endika adiskide minak dira, baina ika-mikan ibiltzen dira txitean-pitean.



Lehengusu-lehengusinak ez dira nahi bestetan elkartzen urtean zehar, baina udako oporretan Zarautzen elkartzeko konpontzen dira beti.

Uztaila amaitu zenean, Andoni eta Leire Landetara joan ziren gurasoekin.

Postal ederra bidali zieten handik Endikari eta Uxueri, Landetako hondartza handi baten argazkia zuena. Postalean bertako hareazko duna zoragarriak ikusten ziren.



Lorek ere bidaia zoragarria egin zuen abuztuan.

Andoni eta Leire baino urrunago joan zen baina.

Gurasoekin eta lagun batzuekin Venezian izan zen Lore.

Venezia Italiako hiri liluragarri bat da.

Itsasoaren gaietan eraikita dago eta, kaleen ordez, itxura harrigarria ematen dioten ehunka ubide ditu.

Zubi izugarri politak ere baditu. Venezian jendeak ez du autoa erabiltzen, txalupa baizik.

Loreri idea aparta iruditu zitzaion hori eta hantxe ibili zen, isildu gabe alamera ematen, aitzak gondolan osteratxo bat egitera eraman zuen arte.

Gondolak Veneziako txalupa tipikoak dira. Beltzak dira eta forma bitxia dute.

Gondolariek gidatzen dituzte arraun bakar batez.



Lorek hasiera batean ez zuen Zarauztik alde egiterik nahi, baina orain asko poztan da Veneziara joan izanaz.

Uda zoragarria iruditu zaio aurtengoa!

1) Zer esan nahi du “ goibeldu” htitzak?

- a. Tristetu
- b. Aspertu
- c. Alaitu

2) Zer esan nahi du “ txitean-pitean” esapideak?

- a. Behin eta berriro
- b. Noizean behin
- c. Poliki-poliki

3) Zer-nolako harreman dago Endikaren eta Uxueren artean?

4) Zein lekutan pasatzen dituzte oporrak?

5) Nola dute izena Endikaren eta Uxueren lehengusu-lehengusinek?

6) Zenbat egun eman dituzte guztiek elkarrekin aurtengo oporretan?

7) Non egon dira abuztuan Andoni eta Leire?

8) Nora joan zen Lore abuztuan?

9) Zein herrialdetan dago Venezia?

10) Nola dute izena Veneziako txalupa tipikoek?
